

Proiektua: Adarbakarra eta soinujolea

Hautagaia: Aizpurua, Maite
Navas, Garazi



Rebeca Horn-en Unicorn performanzearen bideoa baten negatiboa. 1970.

**ADARBAKARRA
ETA
SOINUJOLEA**

Maite Aizpurua eta Garazi Navas

Adarbakarra euskal iruditegia, mitologia eta kultur erreferentziak ikuspegi queer-feminista eta garaikide batetik ikertzeko helburua duen sormen proiektua da. Maite Aizpuruak “Esnatze basa” ipuin luzea idazteko prozesuan sortutako testu bildumak eta Garazi Navasen musika garaikidearen gurutzaketa abiapuntu, performanxe poetikoa eta kontzertuaren artean dagoen emanaldia sortuko dugu. Umorea eta olerkaritza, diziplina arteko esperimentazioa eta euskal topikoen gaineko gaurkotasunezko hausnarketak eta begiradak ikusgarri egitea dira proiektuaren ardatza.

Horretarako klasikoa, herri tradizioa eta korrante garaikideak uztartuko ditugu, erreperitorioa, estetika eszenikoa, lan metodologia eta lengoia artistikoei dagokionez. Eta bide batez, sortzeko eta adierazteko bide propioak eraikitzeari behar duen denbora eta maitasuna eskainiko diogu.

AURREKARIAK: “ESNATZE BASA” IPUINA eta ADARBAKARRA

Maite Aizpuruak Udalbiltzaren “Geuretik sortuak” literatur beka jaso zuen Euskal Herriko herri txiki eta landaguneetan heteroaraua eta (des)errotzearen arteko loturak ikertzeko. Horrela bada, 2023ko udaran Aralar inguratzen duten bailaretan – Larraun, Aritz eta Beteluko udalerrietan - murgildu (zen 3 astez eta horren emaitza “Esnatze basa” ipuin luzea izan zen; alde egiteari, itzultzeari, baina batez ere leku batean egoteari buruzko gogoeta fikzionatua. Ipuinak Zuloa izeneko bailara batera eramaten gaitu, non izakiak (gizatiarrak eta ez gizatiarrak) ahozgoran pentsatzen dabiltzan lurrazpiko memoria eta ostadarraren artean sortutako mendi aldeko paisaia bati adi. Biolentziak belaunaldi arteko memorian, haragian eta egunerokoan eragindako ubeldurak, paisaia eta komunitatearen kontserbazioaren inguruko buruhaustek edota bizirauteko dituzten estrategiak eta egoskorkeria ikusezinak ezagutzeko aukera ematen du ipuinak. Estilo eta generoari dagokionez, gakoa hibridazioa da: ahozkotasuna eta hizkera jaso, prosa poetikoa eta bakarrizketa eta herri jakintza eta filosofikoa/soziologia akademikoa nahasten dituen esperimentua da.

Ipuinaren ezaugarri nagusia bere izaera performatiboa dela esan genezake, gorputzaren eta esanaren mugetatik idatzia dagoela, norbaiti kontatzeko egina izan dela. Irakurleak bere esperientzia, jakintza eta irudimenarekin osatu dezakeen kontakizuna eraikitzekeo estrategia literarioen bilaketan sakondu zuen Maite Aizpuruak, eta zentzu horretan, literatura dramatikotik hurbil dagoen izaera du, irakurle (edo publiko) parte hartzaile eta aktibo batean pentsatzen sortua izan baita. Argitarautako ipuinaz gain, prozesuan zehar idatzitako testu bilduma eta zirriborroak ditugu kaxoian gordeta, ipuinarekin batera, noizbait moldatuak eta eszenaratuak izateko ideiarekin sortu zirenak.

Eta nola ez aipatu, Adarbakarra. Beste hainbat izaki mitologiko eta kondairarekin gertatzen den bezelaxe, Adarbakarrarena Erdi Aroan eta Pizkundean Europa osoan zabalduetako istorioa da, herri eta testuinguru historiko bakoitzak moldatu eta bere egina. Euskal Herrian ez da oso ohikoa, baina Aralar mendilerroak ingururatu dituzten elezaharretan agertzen da, eta inguruotan ezagutu zuen Maitek. Historiako garai desberdinetan izan duen sinbologiak erakarri zuen berehala. Aintzin aroan esploratzaile eta zientzialarien harrapakin eta obsesio; Behe Erdi Aroko hasieran bestiarioan heriotzaren sinbolo; kristautasunaren arabera birjinaren aurrean errenditzen den mesiasaren reenkarrazio; Berpizkundeanren hasieratan maitearengatik negar egin eta heriotzeraino sufritzen duen zalduna; Ilustrazioan eta XX.mendean fabulazko izaki; XXI.an haurrentzako produktu komertzialako pertsona kaltegabekoa eta nola ez, LGTBI komunitatearen eta arrarotasunaren ikur edota ligatzeko app-etan bikoteekin harremanak izateko prest dauden horien “emotikonoa”.

Adarbakarrak liluratuta, pentsamendu kritikoa eta lan artistikoa garatzeko pertsonaia iradokitzailea izan zitekeela pentsatu zuen Maitek. Hain zuzen ere, diskurtso artistiko garaikiderako elementu aproposak baititu Adarbakarrak: hauskortasunaren eta arrarotasunaren adierazpena da, fikzioa-fantasia-errealitatearen arteko muga lausok inguratzen dute eta perspektiba desberdinak jokatzen lagundu dezakeen interpretazio eta sinbologia poliedrikoa du.

ABIAPUNTUKO GALDERAK

- Instrumentuaren teknika hedatuak kontakizun bat eratzen nola lagundu dezake?
- Nola haritu musikaren bitartez poesia eta prosa, ahozkotasun eta literaturaren artean dagoen testu bat bere erritmo, plano eta denbora ezberdinekin?
- Adarbakarrak garai historiko bakoitzean izan duen pisua eta esanahia kontuan hartuta garai horietako estilo edo hizkuntza musikaletatik edateak sinbolo horiek indartzen lagunduko luke?
- Akordeoia bere berezitasunean izango ote da XXI. mendeko musikan adarbakarraren parekoa?
- Luigi Nonoren *azione scenica* (akzio eszeniko) generoaren kodeak berrerabil genitzake? Antzerki musikala, performaceia eta politika uztartuz? Kontuan hartuz Nonok aldi berean Meyerhold, Brecht eta Piscator-en eragin zuzena izan zuela genero propio hau sortzeko. Lagungarriak dira erreferentzia hauek?

METODOLOGIA ETA DIZIPLINA ARTEKOTASUNA

Maite Aizpuruak eta Garazi Navasek gazteak izan arren esperientzia luzea dute diziplina arteko lanean, literatura, musika eta antzerkiak antzeko kodeak erabiltzen baitituzte. Hala ere, sorkuntza prozesua hasieratik elkarlanean jorrateak hiru arte horiek pisu berdina jasotzea esan nahi du eta bien metodologiaren elkargunea izango den bide propioa lortzea.

- “Esnatze basa” ipuinetik eta argitaratu gabeko testuen artetik zatiak hautatu eta berridatziko dira, moldaketa eszenikorako. Prosa poetikoa, poesia eta bakarrizketa nahastuko dituen testu dramatikoak izango dugu oinarri lanerako, abestien ekarpenekin osatua.
- Testuaren erregistro eta formatu bakoitza musikarekin modu ezberdin eta bereizgarrietan islatuko da, horrela barrokoko operako *recitativo secco* eta *recitativo accompagnato*ak, XX. mendeko espresionismoko Sprechgesang eta operan ariak eta musikaletan abestiak deitzen direnak tartekatuz.
- Wagnerren mitologian oinarritutako operetan bezala pertsonaia bakoitzari *leitmotiv* musikal bat ematearekin esperimentatuko da, erabaki honek konposizio-estilo zehatz batekin lotuta egotea esan nahi ez duela kontuan hartuta.
- Wagnerren haritik tiratuz, trobadoreen eta haiek egindako herri-hizkuntzaren erabilpenean eta musikalizazioan sakonduko da. Hauek oso presente egon baitziren bere operetan eta baita adarbakarraren kondairarekin lotura zuzena izan dezake.

Testua I : euskal topiko eta mitologiaren berrirakurketa queer eta feminista

Sexilioaren deserritik jatorrira nola itzuli eta komunitatearen parte nola izan hausnartzen dabilen belaunaldi baten ikuskeratik abiatzen da testua. Denontzako leku bat nola egin pentsatzeko, liturgia, mito eta elkarguneak zein izan daitezkeen hausnartzen duena. Nola berresanaitu aberria, erresistentzia, komunitatea, fedea, borroka, bizi ona edo boterea bezelako gaiak queer komunitatetik? Erresilientzia eta eguneroko iraultzan oinarritzen diren behaketa eta hausnarketetatik sortutako testua izango da, mistika, abertzaletasuna eta maitasunaren kontzeptu erromantikoak ekarritako idealekin umoretik jolasten duena.

Topiko denetatik, zuloa izango da ardatz egituratzaile nagusia. Estigma aldarrikapen bihurtzea diskurtso politiko garaikidearen estrategietako bat izanik, hutsunez sortua den Euskal Herri zaurgarri eta erresistente baten ideia garatuko da testuan, analogia hirukoitza eginik:

- Zuloa askapen borroketarako ezkutaleku eta erresistentzia gune gisa.
- Zuloa emakume eta identitate disidenteetan patriarkatuak estigmatizatutako bortxazko eremu korporal gisa, eta zulo horien beraren aldarrikapena askapen eremu gisa.
- Zuloa paisaia karstikoaren oinarri gisa, gainazaleko berde ikusgarritik harago egia eta jatorria aurkitu daitezkeen barrunbeez sortua.

Testua II: gorputza eta izana duen euskara

Euskara esperimendazio artistikorako hizkuntza gisa landu eta ikusgarri egin nahiko genuke. Olerkigintza klasikotik abiatu, eta musikarekin gurutzaketan daadaiasmora eta espresionismora jo dezakeen testua honduko dugu, alde irrazionalera joan etorriko bidaiak eginaz. Testua, aurrez aipatu gisa, ahozkotasunetik sortua izan da eta lanketa performatiboaren bitartez eraldatuko da. Horrela baita egungo musika garaikide akademiko edo erudituan oso txikia den euskerazko ekoizpenen *corpus*-a zabalduz.

Bestalde, euskara bizi eta ez sexista baten alde, bazterreko errealitateak izendatzeko eta auto-izendatzeko lexikoa lantzeari garrantzizkoa deritzogu, dagoeneko egin diren ikerketak aintzat hartuz¹, baina termino berriak sortu edota esaera zaharrak berriuz, adibidez.

Pertsonaiak: adarbakarra eta soinujolea

Zuloaren gaia ardatz hartuta eta "Dama eta adarbakarra" elezaharrean inspiratutako bi pertsonaien karikatua izango ikerketaren abiapuntu:

- Adarbakarra: trobadorea, mistika, politika eta maitasunaz darabilena. Marika subjektuarekin identifikatzen da. Idealista, kontraesankorra, zirikatzailea. Bazterreko guztien haragitzea, diskurtso politikoa et abere deformazioa daka eszenara.
- Soinujolea: ingurune fisikoa, paisaia karstikoa, eta akzioa-emozioa dakarrena eszenara musikaren bitarez. Birjinaren subjektuarekin identifikatzen da. Zorrotza, zehatza, bat batekoa eta babeslea, jakituna.

Dramaturgia eta egitura: kontzertua eta antzerkiaren artean

Kontzertu kontzeptual baten antzerako egituratik abiatuko gara, abestien antzerako 5 unitate sortuko ditugu (8-10 minutukoak), eta ondoren nola elkarlotzen diren ikertu. Dramaturgia zatikatu baten ideia laduko dugu: kontrasteak, pentsamenduaren eta atmosferaren norabide aldatetako eta denboraren dilatazioa-uzkurtzea eta linealtasun eza. Bidaia partikular, irisgarri eta atsegin bat sortu nahiko genuke, publikoari hausnarketa, behaketa eta emoziorako aukera emango diona. Horregatik, intentsitate eta intimitate maila desberdinetako momentuak zorrotztasunez antolatuko eta tartekatuko ditugu. Azkenik, publikoak bere jakintza eta

¹ Zinegoak-ek martxan jarritako proiektua erreferenteetako bat bilakatu da LGTBIQ+ komunitatearen lexikoari dagokionez (http://zinegoak.com/nolaesanizanbollera_hitzak/)

esperientziarekin osatuko duen artelan bat egitearen balioa azpimarratu nahiko genuke, gure ustetan, harrera delako arte bizietan garaikidetasunaren ardatz nagusienetako bat.

Egitura dramatiko-musikalerako ikergai izango dira lehen aipatutako Luigi Nonoren *azione scenica*, Wagnerren *leitmotiven* erabilpena eta Schoenberg-en Pierrot Lunaire obraren eraikuntza mota. Musikak eman dezakeen denboraren kudeaketa abstraktua eta fantasiatzeko planoen gainjartzearekin jokatu.

Hedatutako teknikaren zabalpena eta performatibitatea

Eskusoinua euskal kulturarekin eta folkloreakin biziki lotutako instrumentua izanda, alderdi hau esplotatu baina musika garaikideak ematen duen neutralitatearen ikuspuntutik tratatua izango da, horrela tresna hau bere osotasunean erabiliz, aurreiritzirik gabe. Teknika hedatuek publikoak dakarren ideia musikal horren gainetik igarotzea eta interpretearen gorputzaren eta instrumentuaren gainazal osoaren ustiatze organikoago bat egitea ahalbidetuko dute. Beti ere ahaztu gabe interpreteen ahotsak tresnaren soinuen barnean sartuz erliebe, nahasketa eta bolumen maila ezberdinetan musika izpiek zeharkatutako prisma koloretsua izatea lor daitekeela.

Testuaren eta abestien ahotsezko interpretazioa dagokionez ere, testu bakoitzari dakion kontatzeko modua bilatuko diogu, ahotsa aukera anitzeko instrumentu gisa ikusirik eta hitzaren alde performatiboari (tonua, erritma, keinuak, koreografia, intentsitatea...) arreta jarriaz. Errezital biluziena teknika konplexuagoekin nola nahastu dezakegun aztertuko dugu, hitz egitearen eta abestearen artean dauden *sprechgesang* y *sprechstimme* bezalako teknikekin.

Azkenik, soinuzko paisaiak nola sortu aztertuko ditugu, soinua, ahotsa eta objektuekin egindako soinu abstraktu eta deformatuen bitartez.

Errepertorio eklektikoa

Lehen aipatutako obra eta konpositore erreferenteak inspirazio-iturri eta aztergaitzat hartuz errepertorio propio baten sorkuntzan murgilduko gara, harmonia, estilo, hizkuntza eta tinbre aurreiritzirik gabe, fantasiasko istorio honek ahalbidetzen duen abstraktutasuna aitzakiatzat hartuz. Egitura minimalista duen eta apaindura barrokoz betetako melodiadun zortziko espresionista bat lortzearen utopiaren bila, gure adarbakar musikalaren bila. Edo zehaztasun horiek guztiak ahaztuz eta ikerketaren ostean elementu musikal horiei esanahi propioa eskainiz, gure garapen propioekin tratatzean.

Eszenaratzea: minimalista eta biluzia

Eszenaren biluztasuna eta simpletasuna hobetsiko ditugu, interpreteek ahotsa, musika eta akzio performatiboaren artean sortutakoari garrantzia emateko. Eszenografiarako proposamenetako bat potroarena da, animalia gogorarazten duten elementua delako. Eszena konposizioa eta koreografia aberastu dezake, plano ta alturak jokatzeko eta akzio eta irudi poetikoak aberasteko eskaintzen dituen aukeragatik.

Jantzigintzaren aldetik, erakartzen gaituzte olerkari edota abeslari klasikoaren estetika erromantikoak, gaurkotasunezko minimalismora eta koloreetara eramanda.

LAN TALDEA

Garazi Navas eta Maite Aizpurua elkartu gara proiektu honetan, elkarrekiko lanaren interesak eta miresmenak bultzatuta. Gure lanetan jorratzen ditugu, klasikotasuna, herri tradizioa eta garaikidetasunaren arteko bideak nola bilatu. Euskal arte bizietan ariten gara.

Erronka metodologikoak eta ibilbide profesionalak sendotzen ari garen honetan, esperientziaren irakaspenak eta esperimentazioa ahalbidetzen dituzten lankidetzak desio ditugu.

KRONOGRAMA / PLANGINTZA

Sormen lana 2024ko udazkenean eta 2025 udaberrian garatuko da, 4 egonalditan, egonaldien artean denbora tarteak izanik lana ulertu eta egonkortzeko, baina prozesuaren jarraikortasuna bermatzen duen egutegi batekin. Ikerketaren fase bakoitzak helburu hauek izango ditu:

2024 urria-azaroa	Aurre prestaketa	<ul style="list-style-type: none">- Edukien ikerketan sakontzea- Lanketa kontzeptuala eta erreferentziak partekatu- Metodologiaren partekatzea eta lanaren plangintza
2025 urtarrila	Ikerketaren abiatzea	<ul style="list-style-type: none">- Material testual, performatibo eta musikalen gurutzaketa.- Materialen lehen aukeraketa eta errepertorioaren zabaltzea- Pieza eszenikoaren 1.go idazketa eszeniko-musikala.- Kolaborazio posiblea: aholkularitza testuala
2025 martxoa	Dramaturgia, konposizioa eta idazketa eszenikoa	<ul style="list-style-type: none">- Materialen aukeraketa definitiboa eta moldaketa- Dramaturgia lanean sakontzea harreraren ikuspegitik: nola transmititu gure ikerketa hartzaileari / publikoari?- Pieza eszenikoaren 2. idazketa eszenikoa- Kolaborazio posiblea: aholkularitza koreografikoa eta musikala
2025 maiatza	Interpretazioa eta eszenifikazioa	<ul style="list-style-type: none">- Ikusgarriaren idazketa eszeniko definitiboa.- Interpretateen lanean sakontzea. (teknikoki)- Ikusgarriaren elementu desberdinen batasuna, ulermena eta exekuzioan sakontzea.

Oraindik egonaldien data zehatzak eta aukerak ixten ari gara. Hala ere, ohiko lan lekuak ditugun eta gure lanei babesa ematen dieten guneak aipatu nahi genituzke, besteak beste, Zumaiako Aita Mari Antzokia, Tabakalera, Dinamoia Sormen Gunea, Garaion Sorgingunea, Azala, Kanpai ...Hontaz gain, prozesuan zehar laguntzaileak izatea aurreikusten dugu (hurrengo asteetan zehaztu genitzake.)

AURKEZPEN ESPAZIOA ETA ZIRKUITU AUKERAK

Espazio eta baldintza anitzetara moldatu daitekeen emanaldia izango da, ordubete ingurukoa. Areto edo antzokietan aurkezteko modukoa izango da, baina espreski espazio ez-ohikoetarako prestatutako sormen lana izatea nai dugu, eliza, museo, patio, kultur etxeko gela, edo bestelakoetarako. Horregatik, espazioaren arkitektura, ikusgarritasun eta soinu baldintzak eta publikoaren dispozizio aukera desberdinak aintzat hartu eta moldatu ditzakeen emanaldia sortuko dugu, beti ere kalitatea bermatzen saiatuz.

Aipatu bide hau interesgarria egiten zaigu, proiektu interziplinarra izanik, kultur zirkuitu desberdinetan aurkeztu eta ekimen desberdinekin elkarlanean aritzeko aukerak zabaltzen dituelako (musika, literatura, arte biziak, antzerkia, ikerketa eszenikoa ...).

Azkenik, uste dugu emanaldia bera interesgarria izan daitekeela euskararen lurraldeetatik kanpo. Alde batetik, eta arte eszeniko garaikideetako des-hierarkizazio irizpideari jarraiki, hitzaz gaindiko elementu guztiek ere diskurtsoe eta esperientzia osatzen dutela. Bestalde, hitzezko aldearen ulerkortasunak irtenbide erraza eta aberasgarria duelako azpi-tituluen bitartez. Nazioartean euskararen presentzia duten zuzenekoak egoteari balio handikoa deritzogu, eta beraz, zirkuitu hori ere aintzat hartu nahiko genuke.

Proposamenaren izenburua: Adarbakarra eta soinujolea

Aurkezlea edo aurkezleak: Maite Aizpurua Olaizola eta Garazi Navas

Proposatzailea (egon ezker):

Curriculum Vitaearen laburpena:

DATU PERTSONALAK (Helbidea, telefonoa, emaila, jaiotze data)

Maite Aizpurua Olaizola

Jaiotze urtea: 1990

www.mao.eus (eraberritze lanetan)

PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA (Garrantzi handieneko titulazioa)

- Arte Dramatikoko Goi Mailako Ikasketak. Dantzerti (ESAD Euskadi). 2015-2019, 1.go promozioa.
- Arte eszenikoetan diplomatua Donostiako TAEn (2013-2015.)
- Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua. EHU-UPV, 2012-2014.
 - Soziologian lizentziatua. EHU-UPV, 2013. Universidade Federal da Bahia, Bahia, Brasil. (2011/2012).

Prestakuntza osagarrietatik aipagarriak:

DANTZA GARAİKIDEA: Kontakt-inprobisazioko ikasketak burutzen, FCİren 2 urteko programan (1.go maila), Body Weather (Andres Corchero, Sara Pons), dantza garaikidea (Monica Valenciano, espaciopropio.augenblick, Mark Thompskins eta Meg Stuart, Lorena Nogal, Arantza Iglesias ...), Butoh (Jonathan Martineau), Clown (Virginia Imaz), Bufoigintza (Andres del Bosque), Sorkuntza garaikidea (Espe Lopez L'Alakran)

KANTUGINTZA: 2022tik Pilar de Catalina sopranoarekin teknika eta erreperitorio operistikoa lantzen .Kantugintza herrikoiki eta tradizionalen jakintza zabala, haurra zenetik abesbatzetan ibilia eta Donostiako Orfeoian ere abestu uzten 4 urtez.

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

EGUNGO EGOERA

Arte Dramatikoko Goi Mailako Tituluduna (Dantzerti), Soziologian Lizentziatua (EHU-UPV) eta Giza eta Kultur Antropologian lizentziatua (EHU-UPV). Gaztetatik gizarte mugimendu eta feminismoan aritua eta heziketa informalean, aisialdian eta kultura parte hartzailearekin erlazionatutako proiektuetan egin du lan 10 urtez. Egun sortzaile, interprete eta pedagogo gisa lan egiten du, batik bat Horman Poster Kolektiboa eta Metrokoadroka Kolektiboa antzerki konpainietan. Azken urteetan, arte-bitartekaritza proiektu hainbat kudeatu, diseinatu eta gidatu ditu bakarka edota kolektibo desberdinen baitan, besteren artean, B Planeta eta Antigone Metodoa ((Horman Poster Kolektiboa, (<https://www.hormanposter.eus/antigone-metodoa-2020/>), Jar gaitezen Dramatiko edota Ikusle KLuba (EHAZE, [https://ehaze.eus/albisteak/ikusle-klubak-herriz-herri-ehazeren -ekimenez/](https://ehaze.eus/albisteak/ikusle-klubak-herriz-herri-ehazeren-ekimenez/)). Bestalde, azken lau urteetan antzezlan hauetan parte hartu du interprete-sortzaile edota zuzendari moduan: Bidaide (Metrokoadroka), *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan* (Metrokoadroka), *Antigone* (Horman Poster), *Souvenir, komeria estralurtarra* (Horman Poster) eta *Erresistentzia arazo fisikoa da* (Mao).

Honetaz gain, 2023an bere lehen eleberri laburra idatzi eta argitaratu du, *Esnatze basa*, Geuretik Sortuak egitasmoaren bekaduna izanik. Bestalde, *Promesarik txikiena* izeneko laguntasunaren inguruko ikerketa sozial eta artistikoa zuzendu eta ekoizten ari da, 2025ko udaberrian antzezlan gisa estreinatuko dena. (hemen deskargatu dosierria: [PROMESA](#)) Kolaboratzaile batuzk aipatzearen, Matxalen de Pedro eszena zuzendaria, Intza Alkain aktorea edota Sahatsal Jauregik eszenografia lanetan parte hartuko dute proiektuan.

Azkenik. 2024Ko otsailetik, EHAZE (Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte)ko koordinatzaile gisa dabil lanean, euskarazko arte eszenikoen inguruan sareak sortu, eta euskarazko antzerkigintzaren sustapen, ikerketa eta dibulgazio lana bultzatzen duen elkarte nagusienetako bat.

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatze, zuzentzeko, ezeztatze eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

PARTAIETZA IKERKETA PROIEKTUETAN (gehienez 2)

Lehenik eta behin, aipatu nahiko nuke eginiko lan pertsonalek eta kolektiboek, ikerketa kutsu sakona izaten dute nahiz eta metodologia edo bide akamemikoetara ez doitu. Horiek guztietatik, aurkezten dugun proiektuarekin harreman gehien izan ditzaketen bi aipatuko nituzke.

Antigone edo ezetzaren beharra. Interpreteta eta sorkuntza. HORMAN POSTER KOLEKTIBOIA. Estreinaldia: 2020ko azaroak 5, Arriaga Antzokia. **Donostiako Antzerkia Saria 2022 irabazña.**

<https://youtu.be/VVwowdRM5TI//>

info+:<http://www.hormanposter.eus/antigone-edo-ezetzaren-beharra/>

Deskargatu dosierra: [hemen](#)

Antzezlan honen abiapuntua klasikoak nola eguneratu eta zein paper jokatu dezaketen ikerketa izan zen. Antigone antzezlanak izandako bertsio anitzetatik abiatuta, botereaz, desobedientziak eta legeaz gaurkotasunez hausnartzeko dramaturgia eta pieza eszeniko bat hondu zuen Horman Poster kolektiboak euskarazko antzerki garaikideei ekarpena eginez. Lanak 2022ko Donostia Saria irabazi zuen euskarazko antzezlan honenari.

Erresistentzia arazo fisikoa da. Antzerki performantzia. Sorkuntza, zuzendaritza eta interpretazioa. MAO Teatroa. Estreinaldia: 2020ko abenduak 19, Niessen Aretoa. **BIRAN.** Trailerra:

<https://www.youtube.com/watch?v=fBFYSZpkS30/>

info +: <http://mao.eus/erresistentzia-arazo-fisikoa-da/>

Deskargatu dosierra: [hemen](#)

Arte Dramatikoko ikasketa amaierako lanean burutuko “umm...mmu” ikerketaren jarraipena izan zen antzezlan hau, profesionalizazioa salto egiteko zubia izan zena. Aktore erren eta korrika makina baten arteko topaketatik abiatuta, desgaitasunak gizarlean duen paperaz umoretik eta esperimentaziotik aztertzen duen antzezlan.

KONGRESUAK, HITZALDIAK, ARGITALPENAK (gehienez 5)

Paperezko argitalpenei dagokionez, honako bi hauek aipatuko nituzke:

Bideteak gara. Saiakera liburu kolektiboa. EHAZE, 2020. Bertan, Telmo Irureta aktorearekin batera arte eszenikoak eta desgaitasunari buruzko hausnarketa plazaratu geuen. 2021, Susa.

<https://ehaze.eus/argitalpenak/bideteak-gara/>

Esnatze basa. Eleberri laburra (Geuretik Sortuak egitasmoan bekaduna) . 2023, Digitalidadea.

Hala ere, arte eszenikoen alorretan ibilirik, gure lanak plazaratzeko bide nagusia, bakarra ez izan arren, pieza eszenikoak dira. Horregatik, Cva eta lanen lagina jartzen ditut zuen eskuragai, ibilbidea ikusi nahi izanez gero.

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

CV osoa: https://drive.google.com/file/d/1xlpzqdOnWaKePVzSB5D_4IQPY-zpttU7/view?usp=drive_link

Egindako lanen lagina (2023ko ekainarte):

https://drive.google.com/file/d/1ZP0hxb1S5NooFusiyQGjAkQwjUgs1uYY/view?usp=drive_link

EGONALDIAK ATZERRIKO ZENTROETAN

Euskarazko arte eszenikoek zoritxarrez zailtasunak izaten dituzte euskararen lurraldeetatik harago bideak zabaltzeko. Hala ere, aipatu nahiko nuke, beti sinestu izan dugula posible dela beste hizkuntza bateko zuzeneko emanaldiak ikusteaz gozatzea, eta saiatu izan garela euskarazko antzezlanak banatzen estatuan eta atzerrian. Erresistentziak lortu zuen tartetxo txiki bat Madril eta Logroñoko areto txikietan, azpтитulaturata eskaini baitziren guztira lau emanaldi.

Estatuz gaindi, Horman Posterrekin EKEko kultur programetan parte hartzeko aukera izan dugu, adibidez, 2022an 3 asteko egonaldia egin genuelarik Donapaleuko antzokian Horman Poster konpainiarekin Souvenir antzezlanaren sormen prozesuan.

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeke, zuzentzeko, ezeztatzeke eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

BESTELAKO MEREZIMENDUAK EDO AZALPENAK (gehienez 5)

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeke, zuzentzeko, ezeztatzeke eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

Proposamenaren izenburua:

Adarbakarra eta soinujolea

Aurkezlea edo aurkezleak:

Maite Aizpurua Olaizola
Garazi Navas Mundiñano

Proposatzailea (egon ezker):

Curriculum Vitaearen laburpena:

GARAZI NAVAS MUNDIÑANO

DATU PERTSONALAK (Helbidea, telefonoa, emaila, jaiotze data)

- Jaiotze-data: 1995/04/26

PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA (Garrantzi handieneko titulazioa)

- Musikako Goi-Mailako Ikasketak, akordeoi espezialitatean (Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia).
- Musika-Interpretazioko Irakaskuntza Artistikoen Masterra, akordeoi espezialitatean (Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia).
- Euskal Musika Tradizionalean Graduondoko Espezializazio-Ikastaroa (Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia).
- Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanzas de Idiomas (VIU, Universidad Internacional de Valencia).

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

EGUNGO EGOERA

- Akordeoilaria mota eta estilo ezberdinetako kontzertuetan (klasikoa, garaikidea, folka, jazza), bai bakarka, bai talde txikiekin eta baita orkestrekin ere.
- Sorkuntza eta inprobisazioaren munduan aktiboki lanean eta dantza, poesia, antzerki, instalazio eta diziplinarteko proiektu anitzetan murgildua.
- Akordeoi-irakaslea Gernikako Julia Foruria Kontserbatorioan eta Zornotzako Zubiaur Musika-Eskolan.
- Arratiako Koruko zuzendaria.
- Bilbo Hiria Irratiko *Stendhalen Oihartzunak* saioko idazle, zuzendari eta esataria.

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

PARTAIDETZA IKERKETA PROIEKTUETAN (gehienez 2)

- 2023/12/08: *Sainen Hildo* biniloaren argitalpena Londresko Hegoa Diskak diskoetxearekin. Miguel Ángel García soinu-artistarekin batera osatutako Doppelganger duoaren azken LPa, akordeoiaren soinu-muga, tinbre konbinazio eta soinu-mekanikoen inguruko bi urteko ikerketaren emaitza.
- 2023-2024: Manu Gaigne Beobide musikariarekin batera *Sonografia Irudipenak* ikerketa-proiektuan parte-hartzea, Euskal Herriko kokapen ezberdinen soinu-zko garapenaren isla izango dena, XX. mendeko artxiboko grabaketa zaharrak, gaur egungo leku beretako grabaketak eta sorkuntza musikala uztartuko duena, soinu-zko mapa interaktibo bat emaitza moduan izango duena. Argitalpena: 2024ko azaroan.

KONGRESUAK, HITZALDIAK, ARGITALPENAK (gehienez 5)

- 2021/12/15: Bilboko Sala Rekalde aretoan kontzertu-hitzaldia, Idoia Montón margolariaren erakusketaren barruan, Montón-en obra musikarekin eta Garazi Navas egiten ari den tradizio eta abangoardiaren loturaren inguruko ikerketarekin erlazionatuz, *laSIA* EHUKo ikerketa-taldeak antolatutako Harri, Orri, Ar mintegian.
- 2021/07/01: Tabakalera Arte Garaikideko Zentroko (Donostia) Arte Makina programaren barruan eskainitako kontzertu-hitzaldia, Oier Etxeberria komisarioak prestatutako Komunikazio-Inkomunikazio erakusketaren inguruan.
- 2021/07/01: Kontzertu-hitzaldia Tabakalerako (Donostia) zineman, Mikel Laboaren *Lekeitioak* obren inguruko Zinema Belarrietara zikloaren barruan.
- 2021: Euskal musikaren inguruko 6 artikulua ingelesez (orokortasunak, historia, konpositoreak, taldeak, erakundeak, musika klasikoa, batez ere musika garaikidea, etab.), Euskal Herriko Musika Bulegoaren (EHMBE) enkargua, ISCM (International Society for Contemporary Music) eta Classical:NEXT bezalako foroetan aurkeztu duten euskal musika garaikidearen inguruko liburuxkarako.
- 2020: *Luigi Nonoren Intolleranza 1960: eskusoinutik ikuspegi konprometitu bat* Garazi Navasen ikasketa amaierako lanaren aurkezpena eta bukaerako debatean parte-hartzea EHUK Gasteizeko Artium museoan antolatutako “Ikasgeletatik espazio publikora” jardunaldietan.

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

EGONALDIAK ATZERRIKO ZENTROETAN

Atzerriko kontzertu eta emanaldiak:

- 2024/08/13: Londresko Cafe OTO-n bakarlari kontzertua, *Sainen Hildo* biniloko obrekin.
- 2024/05/13-16: Kubako Matanzas herriko Festitaller Internacional de Títeres de Matanzas (Festitim) jaialdian emanaldiak Ostomila Txotxongilo konpainia euskaldunarekin.
- 2023/10/17: kontzertua Bilboko Udal Txistulari Bandarekin batera eta Oinkari Dantza-Taldearekin Zürich-eko (Suitza) Kunsthaus Museoa.
- 2023/06/26: kontzertua Bilboko Udal Txistulari Bandarekin batera eta Oinkari Dantza-Taldearekin Dublineko (Irlanda) EPIC Museoa.
- 2022/12/20-21: La Paz-eko (Bolivia) El Bestiario aretoan "Alaia Galtzagorria" ikuskizuna, Ostomila txotxongilo-taldearekin.
- 2022/05/08: Vatikanoko San Pedro Basilikan Arratiako Koruko zuzendaria, gotzainak ospatutako mezan eskainitako kontzertuan.
- 2021/08/29: Sonoscopia aretoan kontzertua Miguel A. Garcíaren obrekin (Oporto, Portugal).

BESTELAKO MEREZIMENDUAK EDO AZALPENAK (gehienez 5)

- Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin bakarlari modura jo du Iker Sánchez zuzendariaren gidaritzapean eta orkestra beraren barruan baita nazioarteko zuzendari ezberdinekin aritu da.
- JONDEarekin (Espainiako Gazte Orkestra Nazionala) jo du eta Musikeneko orkestrarekin bakarlari izan da.
- Soinu-artista eta konpositore ezberdinen obrak estreinatu ditu (Mikel Iturregi, Jon Sáenz, José Ángel Babiano, Manuel Hidalgo Navas, Tetsuya Yamamoto, Antonio Macaretti...) eta jatorri anitzeko artistekin grabatu du (Miguel A. García, Álex Reviriego, Vasco Trilla, Maite Larburu, Bilbao Sinfonietta, Paula Olaz, Ether Ensemble, Tunipanea, Diego Flórez, Bitartean Folk Taldea...).
- Hainbat jaialdi eta antzokitan aritu da: Euskalduna Jauregia (Bilbo), Kursaal (Donostia), Galiziako Auditorioa, Teatre el Musical (Valentzia), Teatro Moderno (Guadalajara), Sonoscopia (Porto), Sonikas (Madril), Phonos Fundazioa (Bartzelona), Zarata Fest (Bilbo), Argiartean (Donostia), Bernaola Zikloa (Gasteiz), Guggenheim (Bilbo)...

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.

- 2019an Donostiako Orfeoia-Musikene Saria eman zioten *Luigi Nonoren Intolleranza 1960: eskusoinutik ikuspegi konprometitu bat* izeneko bere ikasketa amaierako lanagatik.

Europako 2016/679 Araudiaren arabera, honako hau jakinarazten dizu Eusko Ikaskuntzak, fitxategiaren arduradunak: zure datu pertsonalen tratamenduaren helburua izena emateko behar diren datu pertsonalen gestio administratiboa egitea da; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko betebeharririk ez badago, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo; zure datuak eskuratzeko, mugatzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakezu, Eusko Ikaskuntzara joz. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean.